

# Gizajo baten

## EGUNKARIA

### IZOTZ URTZALDIA



Jeff Kinney

ALBERDANIA

Gizajo baten

EGUNKARIA


IZOTZ URTZALDIA



Jeff Kinney

ALBERDANIA





## JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)

Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar

Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak

Gizajo baten egunkaria: Egia gordina

Gizajo baten egunkaria: Etxean itxita

Gizajo baten egunkaria: Bikotean hiru

Gizajo baten egunkaria: Suerte txarra

Gizajo baten egunkaria: Txango zorora


Gizajo baten egunkaria: Eskola zaharra

Gizajo baten egunkaria: Dena ala ezer ez

Gizajo baten egunkaria: Ihesaldia

ITZULTZAILEA:

Miren Arratibel




# Gizajo baten EGUNKARIA

13

## IZOTZ URTZALDIA

Jeff Kinney



ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Fikzio lan bat da hau. Izenak, pertsonaiak, lekuak eta gertakariak egilearen irudimenaren emaitza dira, eta fikzioaren legeen arabera erabiltza daude. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hilak zein biziak), merkataritza guneekin, leku edo gertakariekin, halabeharri zor zaio erabat.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

Jatorrizko izenburua:  
*The meltdown*

Wimpy Kid testu eta ilustrazioen copyright-a © 2018, Wimpy Kid, Inc.  
DIARY OF A WIMPY KID®, WIMPY KID™ eta Greg Heffley design™  
Wimpy Kid, Inc.-en marka erregistratuak dira, eta lan honen azalaren diseinua  
Wimpy Kid, Inc.-en irudi komertziala da.  
Eskubide guztiak erresalbatuta.

Liburua Jeff Kinneyk diseinatu du  
Azala Chad W. Beckerman-ek and Jeff Kinneyk diseinatu dute

Ingelesezt lehen aldiz, 2018an,  
Amulet Books-ek argitaratua eta ABRAMSek inprimatua.  
(Herrialde guztietarako eskubide guztiak erresalbatuta)

© Itzulpenarena: 2021, Miren Arratibel  
© Argitaraldi honena: 2021, ALBERDANIA, S.L.  
Istailaga, 2 behe C, 20304 Irun  
Tf: + 34 943 63 28 14  
alberdania@alberdania.net  
**www.alberdania.net**

ISBN: 978-84-9868-655-5  
Legezko Gordailua: D-1508/2021

DEBENTZAT



## URTARRILA

### Astelehena


Nire auzoan denak kalean dabilta gaur eguraldi epelaz eta eguzkiaz gozatzen. Tira, denak, bat izan ezik: NEU. Ez da gauza ona beroaldia izatea, NEGU gorrian gaudenean.




Jendeak esaten du "eguraldi eroa" dugula, baina niri ez dit batere onik egiten. Zaharkituta egongo naiz, akaso, baina, nire ustez, hotz egin behar du neguan, eta bero UDAN.

Esaten dutenez, PLANETA osoa berotzen ari da gizakion eraginagatik. Baina ez bota niri ERRUA, ni iritsi BERRIA naiz eta.


Mundua berotzen ari bada, oso BIZKOR ez berotzea espero dut, behintzat. Zeren gauzek martxa HONETAN jarraitzen badute, gamelu gainean joan beharko dut laster eskolara.




Adituek diotenez, kasko polarrak urtzen ari dira, eta itsas maila igotzen. Eta gurasoak konbentzitu nahian nabil etxe bat muinoan gorago erosteko. Baina ez dirudi kontu horrekin oso kezkatuta daudenik.



Larritu egiten nau gure familian gai honekin  
kezkatuta dagoen bakarra neu izateak. Egoera  
hau aldatzeko, BEREHALA zerbait egiten ez  
badugu, GUREAK egin du.



Ez nau larritzen itsas mailak gora egiteak bakarrik.  
Kasko polar horiek duela milioika urtetik daude hor,  
eta HANTXE geldituko beharko luketen hainbat  
gauza egongo dira haien azpian lurperatuta.



Film bat ikusi nuen izoztuta gelditu zen haitzuloetako gizaki bati buruz; handik milaka urtera izotza urtu, eta BIZIRIK agertu zen gizaki hura. Ez dakit benetan halakorik gerta litekeen, baina haitzuloetako gizakirik gaur egun hor zehar baldin BADABIL, gure eskolako gaueko bedela izango da horietako bat.



Klimaren nahas-mahas honetatik irteteko modurik inork ASMATZEKOTAN, NIRE belaunaldiko norbaitek asmatuko du, zalantzarik gabe. Horregatik izaten naiz atsegina gazte BURUARGIEKIN, HAIEK salbatuko gaituztelako.



Irtenbidea edozein dela ere, gauzatxo bat esango dizut argi: TEKNOLOGIA izango da giltza.

Helduak esan eta esan aritzen dira teknologia TXARRA dela haurrentzat, baina, nire iritzian, zenbat eta gehiago, orduan eta HOBETO.

Are gehiago: zure ohiturak ikasteko ahalmena duen puntako teknologiako komuna erosteko dirua izan bezain laster, modelorik garestiena erosiko dut.



Batzuk kezkatuta daude guk teknologiaren kontrola galdu, eta robotak GAILENDUKO ote zaizkigun.

Ba, hala gertatzen bada, HAIEN aldean egoteko nire esku dagoen guztia egingo dut.

Hasita nago PRESTATZEN robotek nire etxeko tresna elektronikoek gaineko kontrola hartzen dutenerako.




Horrela, etorkizunean robot erraldoien eta gizakien arteko gerra gertatuz gero, aurrea hartu izana eskertuko diot neure buruari.



Nire anaia Rodrickek dio etorkizunean jendeak robotak izango dituela gorputz atal batzuetan, eta ZIBORGAK izango garela denok.


Nik ez nuke hainbeste itxaron nahi, halere: oraintxe bertan robot hanka pare bat erosterik banu, ordu erdi gehiago lo egin ahal izango nuke goizero.




Ezin igarri, ordea, etorkizunean zer izango dugun. Eta BURUA GAL zenezake horretan pentsatzen jarritz gero.

Oraintxe dauzkagun arazo guztiak konponduta ere, BESTE zerbait etorriko da, eta HORRI ere aurre egin beharko diogu.

Nonbait irakurri dut horixe bera gertatu zitzaiela  
DINOSAUROEI. Ongi moldatu ziren ehunka  
milioi urtez, baina, halako batean, asteroide  
batek jo eta kolpetik garbitu zituen.



Ikaragarriena da orduan ere bazirela labezomorroak,  
eta BIZIRIK jarraitu zutela. Eta, seguru asko,  
hementxe jarraituko dute gu desagertu ondoren ere.  
Niretzat nazkagarriak dira labezomorroak. Baina ez  
dute, NONBAIT, den-dena gaizki egiten.




Bizirik irauteaz ari garela, une honetan bigarren hezkuntza amaitzen ari naiz. Eta azken egunak ez dira izan batere errazak.

Kanpoan bero egiten duen arren, ikastetxeko termostatoak uste du oraindik **NEGUAN** gaudela. Eta berogailua egun osoa topera jarrita, ez da erraza eskoletan kontzentratzea.



Eta askoz ere okerragoa da **KAFETEGIAN**, han ez dagoelako leihorik haize freskoa sartzeko.



Berogailuak burmuinak urtu dizkit, eta ahaztu egiten zait etxeko lanak noizko diren. Gaur, GARRANTZI handiko lan bat ahaztu zait: Nazioarteko Erakusketarako nire herrialdearen proiektua.


Azaroan, herrialde bat aukeratu, eta hari buruzko txosten bat egin behar izaten dugu. Italia aukeratu nuen, pizza zale AMORRATUA naizelako.

Baina jende pila batek aukeratu zuen Italia, eta Gizarte Zientzietako irakasleak erabaki behar izan zuen herrialde hura nori eman. Dennis Tracton aukeratu zuen, eta ez zen justua izan, laktosarekiko intolerantzia duelako eta gazta jaterik ez duelako.




Niri, berriz, Malta egokitu zitzaidan, eta orduantxe jakin nuen Malta herrialde bat dela.

Kontua da duela bi hilabete izan zela hori, eta GAUR arte ez naizela gogoratu ere egin nire herrialdearen proiektuaz. Gaur ere justu-justu gogoratu naiz, eta eskolara iritsi eta jendea oso modu xelebrean jantzita ikusi dudalako izan da.



Egia esan, ez dakit nola ez naizen berehala konturatu Nazioarteko Erakusketa gaur dela, jantzi ero bat soinean duela etorri baita Rowley nire bila. Baina nola berak BETI egiten dituen horrelako pailazokeriak, ez naiz enteratu ere egin.



Langelan, Rowleyren proiektuari begiratutxoa eman diot, ikusteko zer-nolako lana egin duen, eta egundoko sustoa hartu dut.

Itxura batean haren proiektua MILAKA orduko lanaren emaitza da, eta bistan da gurasoek lagundu diotela. Gainera, Rowley izana da egokitu zitzaion herrialdean, eta hori ABANTAILA handia da, noski.



Eskatu diot Rowleyri lagun jatorra izateko eta emateko niri bere herrialdea, baina berekoia da, eta ez du onartu. Nire kasa moldatu beharko nuen, eta ordu batzuk besterik ez nituen proiektua HUTS-HUTSETIK lantzeko. Eta ARRASTORIK ere ez neukan non eskura nezakeen triptiko bat.

Baina gogoratu naiz banuela triptiko bat nire ARMAIRUAN. Jakina. Eta hurrengo egunean bertan hasi nintzen proiektua prestatzen, behingoz garaiz ibiltzeko. Baina atera dudanean, ZENBAT aurreratu nuen ikusteko, jota gelditu naiz.

[illegible]

Gizarte Zientzietako notaren % 50 dagokio lanari, eta etsipenak hartu nau. Saiatu naiz IKASKIDEEI laguntza eskatzen, baina honek GOGORARAZI dit lagun argiagoak behar ditudala.

